

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

@@@Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendariaren martxoaren 22ko 243/2018 Ebazpenaren bidez, hautatze-probetara onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda onartzen da, destinoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izango duen pertsonal estatutarioa izateko Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Neurologiako Mediku kategorian.@@@

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez onartu ziren Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri orokorrak (2018ko otsailaren 8ko EHAA, 28 zk., argitaratua).

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bidez, lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartu ziren, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Neurologiako Mediku kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko otsailaren 19ko EHAA, 35 zk., argitaratua).

Otsailaren 5eko 103/2018 aipatutako Ebazpenaren 11.1 oinarrian jasotakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendariak ebazpen bat eman beharko du, onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onartzeko, baztertzeko arrazoiak berri emanez (hala badagokio), eta zein txandatan parte hartzea eskatu den eta oposaketa-faserako zein hizkuntza ofizial aukeratu den adierazita. 10 egun balioduneko epea eman beharko da erreklamazioak aurkeztu eta eskaera-okerrak konpontzeko. Ebazpen hau Osakidetzako web-orrian argitaratu beharko da.

Esandako guztiagatik, indarrean dagoen legediak pertsonal gaietan ematen dizkidan ahalmenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Destinoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko erakundeetan izanik, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Neurologiako Mediku kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautatze probetan onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda onartzea, baztertzeko arrazoiak emanez (dagokionean), eta zein txandatan parte hartu nahi den eta oposaketa-faserako zein hizkuntza ofizial aukeratu den adierazita. Aipatutakoa Ebazpen honetako eranskin gisa agertzen da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.- Deialdiaren oinarri orokorretako 11.1 oinarrian zehaztutakoaren arabera, Ebazpen honen aurkako erreklamazioa jarri ahalko da eta, hala dagokionean, okerrak zuzentzea eskatu ahalko da Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendariaren aurrean, Osakidetzaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 10 egun balioduneko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 22an.



Osakidetza
Juan Carlos Soto Pérez
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaria,
JUAN CARLOS SOTO PÉREZ



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

SERVICIO VASCO DE SALUD

@@@. RESOLUCIÓN 243/2018, de 22 de marzo, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueba la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos a las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Fac. Esp. Médico Neurología del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.@@@

Mediante Resolución 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud publicándose en el B.O.P.V. n.º 28, de 8 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 111/2018, de 7 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprueban las bases específicas que han de regir el proceso selectivo para la adquisición del vínculo estatutario fijo en la categoría de Fac. Esp. Médico Neurología del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el B.O.P.V. n.º 35, de 19 de febrero de 2018.

Conforme a lo previsto en la base 11.1 de la mencionada Resolución 103/2018, de 5 de febrero, finalizado el plazo de presentación de solicitudes, el Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud dictará resolución aprobando la relación provisional de admitidos y excluidos, con expresión en su caso, del motivo de exclusión y del turno en el que se solicita participar, así como, de la lengua oficial elegida para realizar la fase oposición, concediendo un plazo de diez días hábiles para presentar reclamaciones y subsanar la solicitud. Esta Resolución será publicada en la página web de Osakidetza.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

RESUELVO:


Primero.- Aprobar la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos a las pruebas selectivas convocadas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Fac. Esp. Médico Neurología del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con expresión, en su caso, del motivo de exclusión, del turno en el que se solicita participar, así como, de la lengua oficial elegida para realizar la fase oposición, figurando como Anexos de la presente Resolución.

Segundo.- Ordenar la publicación de la presente Resolución en la página web de Osakidetza.

Tercero.- Al amparo de lo establecido en la base 11.1 de las bases generales de la convocatoria, contra esta Resolución podrá interponerse reclamación y en su caso solicitar subsanación, ante el Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente al de su publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 2018.

El Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
JUAN CARLOS SOTO PÉREZ



Juan Carlos Soto Pérez
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS